# SOPELAKO EH BILDUREN ESKARIA,
# COVID19 PLANAREN FUNTSA 2021an GAUZA DADIN

**ZIOEN AZALPENA**

1. **150.000€ Covid19 Plana finantzatzeko.** Sopelako Udalaren 2021ko aurrekontuen negoziazioan EH Bilduk 150.000€ko partida proposatu zuen, Covid19-ak sortutako krisiaren ondorio sozio-ekonomikoak leuntzeko: zehazki, ostalaritza, merkatari zein zailtasun ekonomikoak pairatzen dituzten herritarren beharrei erantzuteko (ikus https://labur.eus/XYYfj). Beste proposamenen artean (ikus https://labur.eus/A2ueF) Covid19 Plana finantzatzeko partida onartu egin zen, 2021ko otsailaren 25eko Osoko Bilkuran.
2. **Orain arte Covid19 Planaren %20a besterik ez du gastatu Udal Gobernuak.** 150.000€tik 30.174€. Ekainean, 9.358€ Zipiriñeko eskolaren garbiketa sendotzeko eta irailean 20.816€ ludoteka/gaztelekuaren kudeaketa hobetzeko. Aldaketa hauek Alkateak hartu ditu aldebakarreko erabakien bitartez, ez dira oposizioarekin adostu eta erabakiak hartu eta gero jakinarazi dizkigute.
3. **EH Bilduk 2020an hainbat proposamen aurkeztu zituen Covid19-ren ondorio sozio-ekonomikoei aurre egiteko.** Sopelarentzat plan zehatz bat proposatzen genuen (ikus https://labur.eus/IjAZ0), hainbat Udalen esperientzietan oinarrituta, esate baterako Bilboko talka-plana (ikus https://labur.eus/pQEqV) edo beste udalerri batzuetan emandako diru-laguntza zuzenak (ikus https://labur.eus/jJHPS).

Hau guztia kontutan hartuta, **HONAKO ESKATZEN** dugu:

> **Covid19 Planaren gainontzeko %80a 2021an erabiltzea (119.826,00€-ak).** Beste udalerrietako esperientzietan oinarrituz, Sopelako Covid19 Planaren gainerako zenbatekoa 2021an bertan gure herrian inbertitzeko eskatzen dugu.

Uste dugu aukera legalak daudela gastu hori 2021an gauzatzeko. Are gehiago, uste dugu beharrezko dela funtsa hori aurten aplikatzea, lehenbailehen, bere onurak herrian ahalik eta azkarren zabal daitezen. Hori dela eta, **HONAKO PROPOSAMENAK** aurkezten dizkiogu Sopelako Udalari, eztabaidatuak izan daitezen dagokion organuan (Informazio Batzordeak, Bozeramaileen Batzordean), beste talde politikoek proposa ditzaketen bestelako neurriekin batera:

1. **Denda-bonuak (%50a).** Sopelako komertzioetan erosketak finantzatzeko bonuak ateratzea. Sopelako Udalak badu esperientzia horrelako deialdietan (2020an bertan), beraz denda-bonoen prozedura hobetu daiteke iazko balorazioan oinarrituz. Esate baterako, Durangoko Udalak web-aplikazio bar erabiltzen du bere esleipen prozeduran. Ikus https://bonoa.durango.eus/info.
2. **Gastro-bonuak (%30a).** Prozedura berdintsua erabil daiteke ostalaritza-establezimenduetan, dendetan baina partida murritzago batekin. Esate baterako, Durangoko Udalak web-aplikazio bar erabiltzen du bere esleipen prozeduran. Ikus https://bonoa.durango.eus/bono/1.
3. **Diru-laguntza zuzenak Sopelako komertzio eta ostalariei, Covid19ak eragindako kalte ekonomikoak arintzeko (%20a).** Posiblea da mota horretako diru-laguntza deialdi bat 2021. urtean gauzatzea. Esate baterako, ikus Durangoko Udalak ostalariei emandako diru-laguntzak (https://labur.eus/6Sjyo).

Eta horrela jasota gera dadin, honako idazkia izenpetzen dut, nik Guruzne Carrasson, EH Bilduren bozeramailea, Sopelan, 2021ko urriaren 13an.

Guruzne Carrasson
Sopelako EH Bildu

# PETICIÓN DE EH BILDU DE SOPELA,
# para que el Fondo del plan COVID19 sea aplicado íntegramente en el 2021

**EXPOSICIÓN DE MOTIVOS**

**1. 150.000€ para la financiación del Plan Covid19 en los presupuestos del 2021.** En la negociación de los presupuestos del Ayuntamiento de Sopela para el año 2021, EH Bildu propuso una partida de 150.000€ para paliar las consecuencias socio-económicas de la crisis generada por la Covid19: en concreto, para atender los problemas que sufre la hostelería, los comerciantes y la ciudadanía en general por motivo de la crisis generada por la pandemia (ver https://labur.eus/XYYfj). Entre otras enmiendas parciales propuestas por EH Bildu (ver https://labur.eus/A2ueF), la partida destinada a financiar el Plan Covid19 fue aprobada en el Pleno de 25 de febrero de 2021, con un importe de 150.000,00€.

**2. Hasta la fecha, el Gobierno Municipal sólo ha gastado el 20% del Plan Covid19.** De 150.000,00€ ha aplicado una camtidad de 30.174,00€. En junio, 9.358,00€ para reforzar la limpieza de la escuela de Zipiriñe y en septiembre, 20.816,00€ para la mejora de la gestión de la ludoteca/gazteleku. Estos gastos no han sido acordados ni tan siquiera debatidos con la oposición. Se tratan de decisiones unilaterales tomadas por el Alcalde, y nos han sido notificadas una vez tomadas dicha decisiones.

**3. EH Bildu presentó en 2020 una serie de propuestas para hacer frente a las consecuencias socio-económicas de la Covid19.** Proponíamos un plan concreto para Sopela (ver https://labur.eus/IjAZ0), basado en experiencias de otros Ayuntamientos, como por ejemplo, el plan de choque de Bilbo (ver https://labur.eus/pQEqV) o subvenciones directas concedidas en otros municipios (ver https://labur.eus/jJHPS).

Teniendo en cuenta todo lo anterior, realizamos la siguiente **SOLICITUD**:

> **Utilizar el 80% restante del Plan COVID19 en 2021 (119.826,00 €). Basándonos en experiencias de otros municipios, solicitamos que el importe restante del Plan Covid19 de Sopelana se invierta en nuestro pueblo en el mismo 2021.**

Creemos que hay posibilidades legales de que este gasto se materialice en 2021, lo más pronto posible, sin demorarnos en el tiempo, para poder apoyar cuanto antes a nuestro tejido productivo y social. Por ello, creemos que es necesario que este fondo se aplique este año. En consecuencia, presentamos al Ayuntamiento de Sopela las siguientes **PROPUESTAS** para su debate en el órgano correspondiente (Comisión Informativa, Junta de Portavoces), junto con otras propuestas presentadas por los diferentes grupos municipales:

1. **Denda-bonoak (50%).** Bonos para financiar compras en los comercios de Sopela. El Ayuntamiento de Sopelana ya tiene experiencia en este tipo de convocatorias (en el mismo año 2020), por lo que se puede mejorar el procedimiento mediante la valoración del ejercicio pasado. Por ejemplo, el Ayuntamiento de Durango utiliza una aplicación web en su procedimiento de adjudicación. Véase https://bonoa.durango.eus/info.

2. **Gastro-bonoak (30%).** Un procedimiento similar al anterior se puede utilizar en establecimientos hosteleros, pero con una partida más reducida. De nuevo, el ejemplo del Ayuntamiento de Durango que utiliza una aplicación web en su procedimiento de adjudicación. Véase https://bonoa.durango.eus/bono/1.

3. **Subvenciones directas a comercios y hosteleros de Sopela para paliar los daños económicos ocasionados por la Covid19 (20%).** Es posible realizar una convocatoria de subvenciones de este tipo u que materialice en el año 2021. Por ejemplo, véanse las subvenciones del Ayuntamiento de Durango dirigidas a los hosteleros (https://labur.eus/6Sjyo).

Y para que así conste yo Guruzne Carrasson, Portavoz de EH Bildu, firmo el presente escrito, en Sopela, a 13 de octubre de 2021.

Guruzne Carrasson
EH Bildu de Sopelana